# "Euzko-Ikaskuntza"

EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

## ARAUDIA

**Lenengo araua.**—Euskaleŕia maite duten ta ikasbidez argitu nai luketen guziak biltzea da Baltzu onen tšedea.

Baltzu onek, oŕetarako, bitariko gayak erabiliko ditu:—*a)* geron Eŕikoak eta atzeŕitikoak, gure aŕterako egoki diranak beintzat—*b)* beaŕenak auŕen dirala—beti bezela Erlijio gurenaren babesean.

**Bigaŕen araua.**—Bostzuk izango dira Baltzu onen eskuarteak:—*a)* Araba, Bizkai, Gipuzkoa ta Napaŕoako aldundien soroskiak—*b)* Euskaleŕi guziko edozein baltzurenak—*z)* aberats biotz-andi ta esku-zabalen emai ta agintzak—*d)* Baltzu onek egindako gutun ta guŕunen saltze-dirua—*e)* Baltzukidên laginak.

**Irugaŕen araua.**—Batzaŕ iraunkoŕaren egikizunak bederatzi auek izango dira:

—*a)* Baltzukideak artu naiz uztea.

—*b)* Batzaŕ aundien erabakiak betetzea. Oŕetarako berak izendatuko ditu on derizkion sorpen, batzoŕde, ikaste-sari, irakasgu, ikeŕgu, mintzaldi, erakusketa, batzaldi, jayaldi, gutun... eta abaŕ; nola erabili ditezken bideak aŕtuz.

—*z)* Lengo zer oyen antzeko kabuak aintzat artzea.

—*d)* Batzaŕkide diran naiz eztiranai tšostenak eskatuko dizkiete, zer egin ditekean jakiteko; ta onetarako egokitzat dauzkan Batzoŕdeak izendatu al izango ditu.

—*e)* Berarengana argitasun bila ta asmoren batez jo dezaten Baltzu naiz gizon bakartuai abegi ona egitea.

—*f)* Baltzu au, eskuarterik aski eztuenean, laguntasun-eske beste edozein Baltzurengana zuzendu diteke.

—*g)* Lengo sorpenen bizitze ta garapena zaintzea. Onetarako bear duten diruz, itunez eta zein nai eraz lagun egingo diete, sorpen guzi oyek Euskal gogargitasunera jo-eraziz.

—*h)* Baltzuaren eskuarteak (bear dituzten lantegiak sortuz ta irozoz) jagon ta arteztzea.

—*i)* Uŕengo Euskal-ikaste-batzaŕak aleginez bi urterik bi urtera norabaitu, atondu ta araupetzea. Baita ikaste bakar bat edo beste ere, egoki uste duenean, sortu ta irozoko du.

**Laugaŕen araua.**—Batzar iraunkor bat eta artarako Batzordea izango dira Baltzu onen eskudun ta zuzentzaile. Bateko naiz besteko lagun izan nai duenak, euskalduna ta ogei ta iru urtetik gorako gizasemea izan bear du.

**Boskaŕen araua.**—Ona emen Batzar iraunkoŕa nola eratu bear izango dan. Batzar aundien sail bakoitzetik, geyenen eritziz, Batzar iraunkoŕ oŕetarako beren arteko ide bi izendatuko ditu. Baita Baltzu au sorozten duten Idego (bigaŕen arauan aipatu ditugun) Idegoak ere, bakoitzak bere ordelaritzat bat bidali dezake.

**Seigaŕen araua.**—Batzar iraunkoŕ onen (naiz beronen baŕukoak dirala, naiz eztirala) zazpi lagun izendatuko ditu: Buruzagi bat eta bi Buruorde, zadordun bat eta zadordunordea, gordailuzain bat eta gordailuzainordea. Batzar iraunkor oŕetako ide izango dira zazpi lagun auek ta mintzoa ta auteskua izango dute.

**Zazpigaŕen araua.**—Zazpi pentzu auek eta mintzodunenak (zadordunarenak ez) lau urte iraungo dute eta bi urterik bi urtera Batzar betean aldatuak izango dira.—*a)* Lenengo batzaŕean, zozketan ta sail bakoitzean, erabakiko da nortzuk utzi bear izango duten beren pentzua.—*b)* Idego bakoitzak bere ordelariak noiznai aŕtu naiz uzteko eskubidea izango du.

**Zortzigaŕen araua.**—Batzar iraunkoŕa iru ilebetean bein bederen ospatuko da. Oŕetarako Buruzagiak naiz bere ordezkoren batek zortzi egun auŕeragotik ots egingo die ide guziai. —*a)* Batzarkideak geyenen eritziz artuko dituzte beren erabakiak.—*b)* naiz asko naiz gutši bilduaŕen, beren erabakiak beti izango dira aintzakoak (eragileak)—*z)* Beren eritziak bi alde-

tara doazenetan, batean ta bestean kopuru berdina agertuezkero, buruzagiak eritzia eman duen aldea izango da aintzat artzekoa.

**Bederatzigaren araua.**—Idego eragilea iru lagunek osotuko dute: Buruzagi, zadordun ta gordailuzainak—*a)* Auen lekuan beron ordeak jaŕi ditezke.—*b)* ide eragileak egokitzat dutenean bilduko dira.

**Amargaren araua.**—Ona emen Idego eragilearen eskubideak: *a)* Batzaŕ iraunkoŕaren erabakiak betearazi—*b)* Batzaŕ iraunkoŕak berari emandako egikizunai bide eman—*z)* Epetu--ezinak diran egikizunak (Batzaŕ iraunkoŕak emanak ezpadira ere) bete, Batzaŕ iraunkoŕari au eraz (adiuntzaz) jakinaraziz.

**Amaikagaren araua.**—Seigaŕen arauan aipatu diran pentzudun guzien eskubideak (batenak ez) oi bezelakoak izango dira, gainera uŕuzkoak (sari gabeak) eta aldagaŕiak.—*a)* Zadorduna bere egikizun goratsuetan sariztatua ta iraunkoŕa izango da.—*b)* Au gora-bera Ide oŕori, egikizunak betetzeko egin bear dituzten diru-irazte guziak, ordainduko zaizkate.

**Amabigaren araua.**—Euskal-Batzaŕak biltzeko toki ta aldi berberetan ospatuko dira Baltzuaren Batzaŕ beteak. *a)* Ustekabez Euskal-Batzaŕa bildu ezaŕen, Batzaŕ betea bi urterik bi urtera ospatu bite.—*b)* Bilaldi onetan Baltzua nola dagoen ta skuartea ugaria ala uŕia dan erakutsiko da, ta gainera boskaŕen arauko pentzuak beŕiztatuak izango dira.

**Amairugaren araua.**—Baltzukideak bitarikoak izango dira: ongileak eta lagunabaŕekoak.—*a)* Ongile izatekoak urteko 50 peseta bederen eman bear izango ditu ta, edozein gizon bakartu bezela, Idegoak ere (udalak eta Baltzuak) eta atzeŕitaŕgoak baltzukide ongile izan ditezke.

—*b)* Lagunabaŕeko baltzukide izatekoak, urteko amabi peseta bederen emanez gainera, Batzaŕ iraunkoŕaren onespena beaŕ izango dute.

—*z)* Euskal batzarkide guziak, Batzar iraunkoŕaren erabaki gabe ere, nai baldin badute, baltzukide izan ditezke.

**Amalaugaren araua.**—Baltzukide lagunabaŕekoak oi bezelako eskubideak izango dituzte.—*a)* Baltzuak argitara eman-

dako idaskiak-gutun ta gutun-merkeago erosi al izango dituzte—*b)* gutuntegi ta ikerguetan sarbidea izango dute.

**Amaboskaren araua.**—Baltzukide ongileak beste edozein baltzukideren eskubideak izango dituzte ta egoki danean norbait ordelari izendatu dezakete.

**Amaseigaren araua.**—Baltzua uldu bear izanezkero, Batzaŕ beteak (oŕetarako berariz deituriko Batzaŕak) erabaki al izango du.—*a)* Bere ondasunak bigaŕen arauko Idego sorozlên eskuetan, gogargitasun-arazoetarako, jaŕiko ditu Batzaŕ beteak.

**Amazazpigaren araua.**—Araudi onezazko ezbairik balitz, Batzaŕ iraunkoŕak erabakiko ditu ta gainera geigaŕitzat beste arau batzuk artzeko eskubidea ere izango du.

Buruzagia,

*Elorza'tar Julian.*

Zadordun nagosia,

*Apraiz'tar Angel.*

---

Tolosa'n: E. Lopez'enean.